

I. AÑABITARTE BASERRIA

1. Baserria

Gogoratu ikastola batean gaudela, mesedez, denen ardura da dena txukun mantentzea gero bertan haurrak ibiltzen baitira.

Añabitarbeitako baserria familia bolondresek kudeatzen dute. Lantaldera baserriko edozein bazkide elkar daiteke. Erabilerarekin lortzen den dirua, baserriko mantentze lanetarako eta bertan hobekuntzak egiteko inbertitzen da.

2. Bazkideak

Baserriko bazkide bezala onartuak izango dira:

1.1. Ikastolako bazkide titularrak eta hauen senar-emazte edo bikotekideak.

1.1.1. Seme-alaba eta gurasoak ez dira bazkide.

1.2. Ikastolako langileak.

1.3. Ikastolak dagokien organoen erabakiz horrela izendatutako pertsonak.

1.4. Bazkide izateko derrigorrezkoa da 18 urteak beteak izatea.

Bazkideak baserrira eramandako gonbidatuen jokabidearen arduradun eta erantzule izango dira.

II. ARAUDIA

1. ERRESERBAK

a. Erreserba bazkideak egin beharko du, horretarako prestatutako bideak jarraituz.

b. Bazkideak giltzik ez badu, horretarako prestatutako bideak jarraituz jaso beharko du.

c. Baserriko giltza ezin da beste pertsonekin, bazkide edo ez bazkide, partekatu.

d. Zenbakia duen mahai bat okupatzeko, lehenengo erreserbatzea derrigorrezkoa da. Ez da inongo kasuan beste bazkide batek erreserbatu duen mahai bat okupatuko.

2. BASERRIAN

a. **Bazkideak uneoro** egon beharko du baserrian, bere gonbidatuak bertan dauden bitartean. Bere taldetik lehena sartuko da, eta azkena atera.

b. Ikastolako eremuko atea itxirik mantenduko da, bereziki ikastolako bulegoko jarduera arruntik ez dagoenean (lanegunetan 18:00tik aurrera, jaiegunetan egun guztian zehar).

c. Txakurrik ezin da sartu, ez baserri barrura, ezta ikastolaren eremu osora ere.

d. Erretzea debekatuta dago, baserri barruan zein ikastolaren eremu osoan ere.

i. Zigarro-puntak lurrera botatzea erabat debekatuta dago eta falta larritzat hartuko da.

e. Baserria txukun mantenduko da beti:

i. Plater, ontzi, edalontzi, mahai tresna eta gainerakoak ondo garbitu, lehortu eta bere tokietan jasoko dira.

ii. Erabilitako mahai eta aulkiak joan aurretik garbituko egingo dira.

iii. Erratza pasako da erabilitako ingurunean.

iv. Aulkiak mahai gainean utziko dira baserriaren garbiketa errazteko.

v. Mahai eta aulkiak tokiz mugitu eta kalera atera ahal izango dira, baina bukatutakoan beraien tokira bueltatuko dira beti.

vi. Sukaldea jaso eta garbitu egingo da erabili ondoren.

vii. Baserria eta ingurua txukun mantendu eta zainduko da.

viii. Sortutako zaborrak norberak eraman behar ditu eta dagokien zabor-ontzietara bota (ez paperontzietan).

3. ELKARBIZITZA ARAUAK

a. Ez da gainerako bazkide zein gonbidatuak gogaituko dituen portaera eta jarduerarik onartuko (musika altua, zarata, etab.)

i. Beste bazkide batek hala eskatuta, musika itzaltzea derrigorrezkoa izango da.

ii. Adingabekoen portaera behar bezala jarraituko da.

b. Ondoko bizilagunekin ere elkarbizitza arauak berdin zaindu beharko dira.

c. Ikastolako instalazio, ekipamendu, material eta beste edozein motako aktiboren hondatze, puskatze, lapurtze edota kalteren arduraduna bazkidea izango da. Abisua pasa beharko dio baserriko lantaldeari; abisurik pasa ezean, harek ordaindu beharko du eta falta larri gisa hartuko da. Ordaindu ezean, falta oso larria izango da.

d. Erabiltzaileren batek beste norbaitek portaera desegokia izan duela irizten badu, baserriko lantaldeari jakinarazi diezaioke.

4. KONTSUMOAK

a. Baserria erabili ondoren eta bertatik joan aurretik kontsumo orria (nota) bete behar da, momentuan horretarako prestatutako medioen bidez (papera, ordenagailua, etab.)

b. Deskortxea: Kanpoko edari guztiengatik deskortxea ordaindu beharko da, unitate bat botilako.

c. Erabiltzaile guztiek ordaindu behar dute baserriaren erabilpena, haur zein heldu. Horretarako, kontsumo orrian zehaztu behar da erabiltzaile kopurua.

d. Kontsumo-faltak: Baserria kudeatzeko lantaldeak gainbegiratzen ditu astero kontsumoak. Gerta liteke zuekin harremanetan jarri behar izatea hutsegiteak dauden asteetan.

Ez da inor susmopean jartzen; asteko erabiltzaile guztien kolaborazioa ezinbestekoa da kontuak kudeatzeko garaian.

5. BASERRITIK JOATERAKOAN

a. Ziurtatu atea eta leihoak ongi itxita daudela, argiak itzali, gasa itxi eta su eta labeen mandoak iraungi dituzuela.

b. Baserriko atea giltzaz itxiko da, eta baita ikastolako eremuko hesiko atea ere (ondo bultzatu eta gero zarrailari buelta eman behar zaio).

6. ARAUDIAREN GEHIGARRIAK

Egoera bereziei aurre egiteko, baserriaren kudeaketa taldeak ikastolari dagokion organuaren oniritziarekin, arau hauen gehigarriak onartu ahal izango ditu.

Gehigarri hauek araudi honen osagarri izango dira eta bertako arauen balio eta ondorio berdinak izango dituzte. Indarrean sartzen direnean bazkideei jakinaraziko zaie ikastolako ohiko zabaltze-medioen bidez: adibidez, 2020ko COVID-19 pandemiari aurre egiteko protokoloa, etab.

III. ZIGORRAK

Orokorrean, hiru mailako arau-hauste eta horiei dagozkien zigorrak ezartzen dira:

1. Falta arinak:

Besterik zehaztu ezean, araudiko edozein arau-hauste, falta arina izango da.

Lehen faltak, abisua suposatuko du.

Arau berdina bigarrenkoz, edo 3 arau hauste arin pilatzeak falta larria suposatuko du.

2. Falta larria

Bazkideak ezin izango du baserria erreserbatu ezta erabili ere, beste bazkide batek gonbidatua izan arren, urtebeteko epean zehar. Falta larria egin duela jakitera ematen zaion unean sartuko da indarrean zigorra.

Bazkideak zigorra beteko ez balu, falta oso larria litzateke.

Bazkideak bigarrenko falta larria egingo balu, falta oso larria suposatuko du.

3. Falta oso larria

Bazkideak ezin izango du inoiz gehiago baserria erreserbatu ezta erabili ere, beste bazkide batek gonbitatua izan arren.

Faltak baserriko kudeaketa taldearen batzarrak erabakiko ditu, bazkidea entzun ondoren.

Erabakiari helegitea jar diezaioke bazkideak Artezkaritza Kontseiluan.

I. eranskina – Txartelak (2022-06-01)

1. Baserrira sartzeko txartel nominatiboa beharko du bazkideak. Eskuratzeko 60€ jarri beharko ditu fidantza moduan. Txartela bazkide titularraren izenean egongo da beti.
2. Txartel nominatiboak lortzeko aukera dagoenetik aurrera, idazkaritzan ez dira oraingo txartel "anonimoak" gehiago banatuko. Bazkideek baserrira joateko beraien izenean egongo den txartela eskatu beharko dute. Langileek ikastolako beraien txartela erabiltzen jarraitu ahal izango dute honetarako.
3. Txartela galtzen duenak, berria eskatu ahaliko du, berriro ere 60€ ordainduz. Txartela galdu duela ohartu bezain laster adierazi beharko du baserria@oreretaikastola.eus helbidera, berria eskatu ez arren.
4. Txartelak funtzionatzeari utziko balio, bazkideari txartel berria entregatuko zaio, beti ere aurreko txartelaren truke.
5. Txartela puskatuko balitz, bazkideari txartel berria entregatuko zaio, beti ere aurreko txartelaren truke eta 30€-ko gehigarria ordainduta.
6. Txartela bazkideak (eta bere bikoteak baserrian altan emana badago) eskusiboki erabili ahal izango dute, eta ezin izango diote beste inori utzi.
7. Txartelak eskuratzeko jarritako dirua baserriko kontuan ingresatuko da.
8. Bazkideak baserrian baja eskatu eta giltza bueltatutakoan, jarritako fidantza bueltatzea eskatu ahal izango du. Hasieran jarritakoa bakarrik itzuliko da (ez galera edo puskatzeagatik jarritakoa) eta baserriaren kontuek itzulera posiblea egiten duten momentuan; ez du berehalakoa izan beharrik. Baja eskatu ondoren, ezin izango du urte natural bat pasa arte berriro ere alta eskatu.

Arautegi hau 2020ko urriko artezkaritza kontseiluan onartu zen.

2022ko maiatzeko artezkaritza kontseiluan baserriaren giltza-kudeaketaren inguruan hartutako erabakietara egokitu da eta baita internet bidezko erreserba sistema eta kontsumo-orriak egiteko ordenadore sistemara ere.